

Gernika-Lumoko Udalaren eta Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ren arteko hitzarmena

Gernika-Lumon, 2012ko-n.

Elkartzen dira

Alde batetik, Jose Mari Gorroño, Gernika-Lumoko Udaleko alkate-lehendakari gisa, udalbatzarrak-n hartutako akordioari jarraituz diharduena

Bestaldetik, Elixabete Arostegi, adinduna, NAN zenbakia 78896553K duena; Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.ren kudeatzaile baldintzetan hartzen du parte, jaun Notarioaren aurrean, eta 134 protokolo zenbakia duen ahalmenaren arabera ahalmendua dena

Adierazten dute

1. Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.k, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko informazioaz osatutako egunkaria eta webgunea egiten ditu, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* izenekoa asteartetik ostiralera, eta egunero busturialdea.hitza.info, eta Gernika-Lumoko berri ematen du, zabal. Hauek dira gure komunikabideen ezaugarriak: finantziazioa pribatua (bi heren inguru; autofinantziazioan goraka joateko helburua du) eta publikoa dituen, eta herrigintzan oinarritua izatea. Informazio produktu horien sorburua, euskarako komunikazio eta kultur erakundeetan dago.
2. Gernika-Lumoko Udalak, informazioa emateko helburua era zabal eta irekian bideratzen bada, alderdikerietan erori gabe, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza*-ren egunkaria, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren web-a eta sor litezkeen beste proiektuak herrirako eta eskualderako onuragarriak direla uste du.
3. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* egunkaria eta busturialdea.hitza.info euskararen erabilera areagotzeko lanean ari dira eta ariko dira euskararen normalizazioa lortzeko bidean oso tresna garrantzitsuak dira eta izango dira, eta horren guztiaren onuradun Lea-Artibai, Mutriku eta



Busturialdeko herritarrak izango dira (beraz, Gernika-Lumoko herritarrak ere bai).

Zentzu horretan, eta Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.k bide horretatik lan egiteko konpromisoa hartua duenez, Udalak erakunde horrekin elkarlanean aritzeko borondatea adierazten du.

Honenbestez, eta Gernika-Lumoko udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak-n hartutako akordioarekin bat, hitzarmen honen bidez aipatutako konpromisoa gauzatzera gatoz.

KLAUSULAK

Lehena. Egunkariak eta webguneak, informazioa jorratzean eta zabaltzean, era guztietako edukiak eta gaiak argitaratuko ditu. Independentea, plurala, orekatua eta parte-hartzailea izango da. Beraz, alderdi politikoen eraginpean izatea saihestuko du, eta inpartzialtasuna zainduko. Eskualdeko beste elkarteek eta hiritar orok parte hartu ahal izango dute egunkarian eta webgunean.

Bigarrena. Gernika-Lumoko Udala informazio iturri garrantzitsua da herriko bizitzan. Horrela, egunkariak Udalaren eta herritarren arteko zubi izan nahi du, eta Udalarekin zerikusia duten albisteak argitaratuko ditu. Lehenengo puntuaren ildo berean, aipatutako produktua informazioaren aniztasunean eta orekan oinarrituko da.

Hirugarrena. Egunkarian eta edizio jarraituan zaindu egingo da pertsonaren errespetua edo norbaiti min eragin diezaiokeen informazioak ez ematea.

Laugarrena. Egunkaria eta interneteko ataria euskara batuan idatziko dira, baina eskualdeko ukituarekin. Hizkuntza eredu bihur daitezke irakurleentzat. Eta eredu izan daitezkeen aldetik, ahal den eredurik egokiena izaten saiatuko dira. Beraz, gutxieneko hizkuntza kalitatea ziurtatu behar dute.

Bosgarrena. Euskararen normalizaziora begirako lanean segituko dute, eta normalizazioarekin zerikusia duten beste ekimen denak zabalduko eta sustatuko ditu.

Seigarrena. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* astean lau aldiz argitaratuko da eta busturialdea.hitza.info edizio jarraituan.

Zazpigarrena. Hitzarmen honen iraupena, legealdi hau bukatu arteko urtekoa izango da. Hau da, 2012, 2013, 2014 eta 2015 urteetako.



Zortzigarrena. Euskara oraindik ez dago normalizatua, eta, beraz, proiektuak bideragarriak izan daitezen, erakunde publikoei diru laguntza eskatuko die (eskualdeko udalei, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari). Gernika-Lumoko Udalak Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* egunkariari eta busturialdea.hitza.info webguneari diru laguntza emateko asmoa adierazten du.

Horrela, Udalak Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.ri, komunikazio proiektu honengatik, 2012. urterako guztira biztanleko bi euroko laguntza emango dio, hau da, guztira 32.000 euroko diru laguntza.

Hurrengo urteetan kopuru horri KPI-a gehitzeko ahalegina egingo da. Dena den, horretaz aurreko urte bukaeran bi aldeen artean hitz egingo da hurrengo urteko egitasmo eta aurreikuspenaren baitan eta hitzarmenean egin beharreko egokipenak adosteko.

Bederatzigarrena. Gernika-Lumoko Udalak urtero harpidetzak sustatzeko, Hitza-rekin elkarlanean ekingo dio kanpaina berezia garatzearren eta honi legozkikeen gastuak aurreko klausulan aipaturiko konpromiso ekonomikoan barne egongo dira. Bi aldeen artean adostuko da harpidetza horiek nola gauzatu.

Hamargarrena. Publizitateak hedabide zabalak eskatzen ditu eta zorionez euskaldunen merkatua hazten ari bada ere (gazteen artean, batik bat), oraindik oso mugatua da alde horretatik euskarazko prentsa.

Euskarazko prentsak errentagarritasuna eta prestigioa ezinbesteko balioak ditu publizitatea eskuratzeko. Ahalegin horretan Udalak eredu izan behar du eta Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzak Gernika-Lumoko herrian kontsumitzen den euskarazko prentsan duen tokia ikusita Gernika-Lumoko Udalak konpromisoa hartzen du 2012.urtean zehar burutuko dituen kanpainetako publizitatearen zati bat Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzan eta webgunean txertatzeko, ez Euskara Sailak egin ditzakeenetan bakarrik, gainerako udal saila eta erakunde autonomoen kasuan ere bai. Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.k urte bakoitzeko egitasmoa maiatza aldera adostuko du Udalarekin eta urteko lehenengo hiruhilean, berriz, aurreko urteko jardueraren memoria eta diru kontuen balantzea aurkeztuko du.

Hamaikagarrena. Udalak urteko diru laguntza honela emango dio Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ri: urte bakoitzari dagokion kopuruaren %80 urte bakoitzeko ekaina baino lehen, eta %20 urria baino lehen.

Hamabigarrena. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* egunkariak eta webguneak egunero Gernika-Lumoko Udalaren diru laguntza jasotzen duela adieraziko du.





LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA **hitza**

gernika-lumoko
euskara zerbitzua



Eta bi aldeen adostasunaren seinale, hitzarmen hau sinatzen dute, bertan aipatzen diren leku eta egunean.

GERNIKA-LUMOKO UDALEKO
ALKATE-LEHENDAKARIA

LEA-ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK S.L.-KO
KUDEATZAILEA

Jose Mari Gorroño

Elixabete Arostegi

